

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Gora Euskadi askatuta?

Ion Mintegiaga Oiarbide • IBARRA

Horixe oihukatzen zuen euforikoki EAJ-EAko jendeak M-13ko gauean. Kanpainan zehar hitz erdirik ere ez indenpendentziari buruz. Ezta Nafarroa eta Iparraldeari buruz ere. Estatutua, eta nola ez, Kontzertu Ekonomikoa omen ziren lehenbizi babestu beharrekoak. Arzalluz, Ibarretxe eta Errazti ere espainol hutsez zuzendu zitzaizkien bertan bildutako jarraitzaileei. Amorruek barrenak jan zizkidan.

Zorionak berriz koalizioa bozkatu zenuen 80.000 EHtar ohi ia guztiei. Baiezko biribila eman diozue lurralde zatiketari, enpresari boteretsu ugariri eta BBVAko sektore bati; baiezko biribila AHTren proiektuari (koalizioak kanpainako karteletan erabilitako baserria bezalako anitz txikituko dizkiz honek); baiezkoa A-8 autobideko peajea ordaintzeari.

Haikaren legekanpotzea asimilatu duzue, *Ardi Beltza* ixtea, Ekin, Xaki, AEK eta abarren kontrako eraso errepresibo krudela. Presoen eskubideei trufa egin diozue, senideei burla, torturatuei iseka (aurten jada 68; 15 Ertzaintzak, hots, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak). Bejondeizuela.

Zenbaitek usteko du nire amorrazioa EHren beherakada nabarmenak eragindakoa dela; zinez diot ezetz. Emaitei ez diet gehiegi erreparatzen ez bainaiz demokrazia liberaletako sistema parlamentarioaren zalea. Amorrazioa, koaliziokideen hipotesiaz aparte, estatuen eraso bortitzei kalean erantzuteko izan dugun gaitasun ezak eta alderantziz M-13an griñak sorrarazi dit. Sartreren liburuetakoko esku zikinek aspaldi garbitu zituzten eurenak hemen, azkazaltarte eta guzti. Sistemarekiko atxikimendua, kapitalismoaren garapena eta globalizazioaren fenomeno etxeko sukalderraino sartu zaizkigu azken urteetan. Ondorioak lazgarriak izan daitezke hain herri txikiko kultura eta bizimoldearentzat.

Beno, esandakoa, gora Euskadi askatu-



galdeiozu...

Vila-realen aurkako partiduko bigarren golean zuk emandako pasea zoragarria izan zen, aspaldi ez dut horrelakorik ikusi. Zer nahiago zenuen momentu horretan, pasea eman ala Tayfunen lekuan egotea?

Rafa Retegi (Igantzzi)

Momentu horretan nire lekuan egon behar nuen, hau da, Tayfun taldekideari berak gola egiteko pasea ematen. Gola nork egiten duen ez da garrantzitsua, taldeak irabaztea baizik. Badakit nire ardura ez dela golak egitea. Ahal dudana ilusio handienarekin taldeari laguntzea da nire eginkizun nagusia.

Maiatzaren 22tik aurrera **Gorka Igartua • aktorea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



XABI ALONSO

Realeko jokalaria

ta! barkatu, gora Euskal Herria askatuta...eta sozialista.

Keler garagardoa bai

Luis Mari Garcia • DONOSTIA

Enpresa handiak enpresa txikiekin elkartzea ez zait batere gustatzen, enpresa txikien produktuak pixkanaka-pixkanaka desagertuko direla uste dudalako. Gainera, enpresa txikiaren merkaturaren enpresa handiaren produktuak ipintzen direlako.

Orain, pentsakera hori praktikan gehiago jarri dela ikusten dut, eta adibide asko aipa daitezke (BBV-Argentaria, Repsol-Camps...). Baina niri asko kezkatzen nauena honakoa da: Keler-Cruz Campo-Heineken elkarte.

Gaur egun, Donostiako Alde Zaharrean, eta edozein herritan, tabernetan Keler garagardoa ez da serbitzen. Ezin dut edan ez dagoelako. Hemengo produktu eder horren orde, Heineken edo Cruz Campo

serbitzen dituzte. Oso gaizki iruditzen zait, eta protesta egin nahi dut.

Mesedez, tabernariak ez zaitezte joko horretan sar eta Keler garagardoa eska ezazue. Ez itzazue tabernak edari miresgarri hori gabe utzi.

Ezkortasunik gabe, ugazaben eskaintzari mobilizazioa

Josean Cuesta

Maiatzaren erdian gaudela oraindik ez dugu hitzarmenik. Ugazabek berriro ere, hitzarmenen «negoziazioaldietan» ohi den bezala, euren «jolastokira» eramane gaituzte, egutegia eta ekoizpen gailurrak inposatu, eta oraingo honetako eskaintza eskasa baino eskasago izan da pentsatuz onartuko dugula nekearen nekez.

Langile Batzordearen estrategia negoziatzailearen balantzea ezin txarrago izan da. Gutxieneko errebindikazioekin; nego-

ziazioaldiak luzatuz; metalgintzako, papergintzako gatazka-giroaz probetxurik ez ateraez langileon presioa erabiltzeko, eta azkenik «hartu ala utzi» aukerarik gabeko erreferenduma egiteko, proposamen mobilizatzaileak gabe emakidak lortzeko ugazabek etekin biribilak dituztenean. Jokabide honi langileengan ezkortasuna zabaltzea eta piztea deitzen zaio. Jarrera honen ondorioz, erosteko ahalmena galduko dugu, soldata-bermearen klausula kendu nahi dute, bost txandetako langileak diskriminatzen dituzte, iraunaldi luzeegia hitzarmen kaxkar bantentzat, lanaldi murrizketa txepela, segurtasuna eta osasuna alde batera uzten ditu, batez ere azpikontratetako langileentzako segurtasun-planen ezinbesteko koordinazioa, zein burugabekeria asko.

ESKren atal sindikalak bere hausnarretak plazaratu nahi ditu ez gaitezen eror tranpan:

1. Hitzarmen ona lortzeko plataforma eztabaidatu egin behar da, berau gurea egin ahal izateko; bistan da Langile Batzordearen plataformak ez duela gehien goaren nahia jasotzen lanaldiaren murrizketa eta osasunaren defentsari buruz. Sindikatu frantziarren afiliatu beharko gara eskakizun hauek aldarrikatzeko?

2. Inork ez du ezer ezeren truke ematen, eta Michelinek are gutxiago. Metalgintzako eta papergintzako mobilizazioek eragindako koiuntura ez aprobetxatzea lan-etenaldiak zein presioa egiteko, mahaiko apurrak jasotzera joatea da, Langile Batzordearen negoziatzioaldiek argi eta garbi adierazten duten moduan.

Michelinek produktibitatea eta etekinak nola edo hala handitu nahi ditu, eta horretaz makineta lan egiten dugunok inork baino hobeto dakigu; honexegatik, gure erantzuna biribila izan behar du: erreferendumean eskaintzari ez bozkatzuz, lan-etenaldi eta mobilizazioei beste eskaintza berri bat mahaigaineratzeko.

Anima zaitez eta gure proposamenei babes eman, multinazionalari aurre egin gion sindikalismoa bultzatuz. Bat egin ezazu gurekin!

montxo

